

IKASGELATIK PLAZARA

EA21 Tolosaldea
2012/2013 ikasturtea



Tolosaldea, 2013ko maiatza

“Ikasgelatik plazara” festa. Gonbidapena

Tolosaldeko Eskola Agenda 21 programan parte hartzen dugun ikastetxeok, 2012-2013 ikasturtean BIODIBERTSITATEA gaia landu dugu bigarren urtez. Lan honen bitartez gure inguruko altxorrak ezagutu eta errespetuz gozaten ikasi dugu eta sentimendu hau gainontzeko herritarrei helarazi nahi diegu. Horregatik **“Ikasgelatik Plazara”** festa antolatu dugu, biodibertsitatea zaintzearen beharra lau haizetara zabaltzeko asmoz.

Zuen interesekoa izango delakoan, idatzi honen bitartez festan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Ekitaldiaren bi saio egingo dira:

1º saioa:

- ♦ **Lekua:** Tolosako Triangulo plaza
- ♦ **Eguna:** 2013ko maiatzak 22, Biodibertsitatearen eguna
- ♦ **Partaideak:** Tolosa, Alegia eta Ibarako eskola komunitateak

2º saioa:

- ♦ **Lekua:** Villabonako plaza
- ♦ **Eguna:** 2013ko ekainak 5, Ingurumenaren eguna
- ♦ **Partaideak:** Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilgo eskola komunitateak

Egitaraua:

- 09:30-10:45 : Ikastetxeen arteko taldekako lana
- 10:45-11:00 : Erakusketak ikusteko tarte
- 11:00-11:30: Komunikatuaren irakurketa eta amaierako sorpresa

**Anima zaitetz, denon artean
tolosaldea berde eta justuago bat eraiki dezakegu eta!**

Tolosaldeko Eskola Agenda 21eko partaideak